

## KUTXABANK TXARTELEN SUSTAPEN-KANPAINA:

### “CANDLELIGHT IKUSKIZUNERAKO SARRERA BIKOITZEN ZOZKETA”

#### 1.- Definizioa:

KUTXABANK SAK ekintza komertzial bat egingo du Estatu osoan, Kutxabanke jaulkitako txartelak sustatzeko; adinez nagusi diren pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute, betiere Kutxabanken bezero izanez gero eta oinarri hauetan finkatutako baldintzak betez gero.

Zozketa egingo da soil-soilik publizitate- eta sustapen-helburuekin, eta ez du ekarriko ez gainpreziorik ez tarifa gehigarririk parte-hartzaileentzat.

#### 2.- Sustapen honetan sari hauek emango dira:

- 350 sari(opari): Candlelight kontzertu batera joateko “A zonako” sarrera bikoitz batengatik trukatzeko kupoi bat. Lege Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten kontzertuen artetik aukeran. Sariaren balioa 120 euro.
  - Kupoia Candlelight webgunearen bitartez alda daiteke:  
<https://candlelightexperience.com/es>
  - Candlelight enpresak Espainian presentzia duen edozein ekitalditarako erabili ahal izango dira sarrerak.
  - Irabazleak 2025eko urtarrilaren 15etik 2026ko urtarrilaren 15era bitarte aldatu ahal izango du kupoia, eta aldi horretan diren ekitalditarako egin ahal izango ditu erreserbak.

3.- Kanpaina 2024ko azaroaren 15etik 2024ko abenduaren 15era egongo da indarrean, bi egun horiek barne, eta zozketa, aldiz, 2025eko urtarrilaren 14an egingo da, Bilboko notario Vicente M<sup>a</sup> Arenal Otero jaunaren aurrean; zozketa egun horretan egiterik ez badago, hurbileko beste data batean egingo da.

Kutxabanke sustapen hau bertan behera uzteko edo baliogabetzeko eskubidea izango du, edo, arrazoi teknikoak, sanitarioak, ezinbesteko arrazoiak edo Kutxabanken borondatek kanpoko beste edozein arrazoi direla medio sustapena ezin izango balitz normal garatu, sustapenaren baldintzaren bat aldatzeko eskubidea ere izango du. Nolanahi ere, ez du inolako erantzukizunik izango aldaketa horren ondorioz, eta oinarri eta baldintza berriak jakinarazteko eta horien berri emateko konpromisoa hartzen du edo, hala badagokio, baliogabetzeko konpromisoa, betiere nahikoa denborarekin jakinarazita. Era berean, Kutxabanke ez du inolako erantzukizunik izango baldin eta saridunak, erakundearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, sariaz gozatu ezin izango balu.

4.- Sustapenean parte hartu ahal izango dute adin nagusiko pertsona fisikoek, Kutxabankeko bezero badira eta zozketaren egunean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- Finantza-txartel aktibo baten, gutxienez, titular izatea; jarraian zehazten diren partikularren txartel hauetako bat izan daiteke:

Visa Classic, Visa Oro, Visa Oro Dual, Visa Oro Profesional, Visa Platinum, Visa Dual, Visa Dual Profesional, Visa Dual Korner, Visa Dual K26, Visa Dual K26+, Visa Dual 100%, Visa Dual Nagusi, Sticker Dual/Crédito, Visa Nakar, Visa Partaide, Visa Dual R.Sociedad, Visa Debit, Visa Debit Profesional, Visa Debit Korner, Visa Debit K26, Visa Debit K26+, Visa Debit 100%, Visa Debit Nagusi, Visa Debit R.Sociedad, Sticker Débito, Visa Extra.

- Aurreko puntuan adierazitakoen artetik, titularra den txartel(ar)ekin erosketak egin (eta baliogabetu ez) izana 2024ko azaroaren 15etik 2024ko abenduaren 15era bitarte, erosketak guztien gutxienerako zenbateko metatua 150 euro izanik eta, aldi berean, Kutxabanken datu-basean helbide elektronikoko bat jakinarazita izatea.

- Zozketaren egunean Kutxabankek kontu baten eta Kutxabank txartel baten (aktibo egon behar du) titular izatea.

- Kutxabankek zozketatik kanpo utzi ahal izango ditu erakundeetan saldo zordunak mugaeguneratuta dituzten pertsona fisikoak, edo zozketaren egunean kapital-zuriketa prebenitzeko fitxategietan daudenak, eta kanpoan utziko ditu ere datuak babesteko araudiaren arabera publikitate ez jasotzea eskatu dutenak edo komunikazio komertzialak ez bidaltzeko fitxategi komunen batean sartuta daudenak.

**5.-** Parte-hartzaile bakoitzari “aukera” bat emango zaio 4. puntuan aipatutako txartel bakoitzeko, betiere txartelarekin metatutako zenbatekoa gutxienez 150 euro baldin bada.

“Aukerak” zenbakitu egingo dira, elkarren segidan, 1 zenbakitik hasita.

**6.-** Era berean, 4. puntuan zehaztutako txartelean egindako erosketak egiaztatzeko, “baliozkotzat joko dira 4. puntuan zehaztutako txartelean eta kanpainaren indarraldian (2024ko azaroaren 15etik abenduaren 15era bitarte) 3. puntuan jasotakoaren arabera-egindako erosketak, betiere Kutxabanki jakinarazten bazaizkio sare eta erakundeekin informazioa trukatzeko dauden sistemen bitartez, fitxategi informatikoak egiteko egunean.

**7.-** Zozketa notario aurrean egingo da 2025eko urtarrilaren 14an edo, egun horretan egitea materialki ezinezkoa bada, gertuko beste egun batean.

4. eta 5. oinarrietan aipatutako baldintzak betetzen dituzten txartelean fitxategi informatiko bat osatuko da, txartel-zenbakiaren arabera ordenatuta eta txartel bakoitzari esleitutako “aukera”ri dagokion zenbakia zehaztuta.

**8.-** Zozketa egiteko, notarioak zenbaki bat aterako du bonbo batetik; bonbo barruan, 1 zenbakitik hasi eta, 5. oinarrian adierazten denaren arabera, esleitutako azken zenbakira arteko zenbaki guztiak sartuko dira. Zenbaki hori izango da lehen sariduna.

Gainerako saridunak hautatzeko eta, horren ondoren, erreserbakoak zehazteko, atera den zenbakiari honako hau gehituko zaio, prozedura informatikoak erabilia: fitxategian erregistratutako aukera guztien kopurua zati sarien gutziko kopurua (350) egin, eta zatidurari erreserben kopurua (20) gehituko zaio; hau da, zati 370 egingo da, eta ateratzen den zatidura biribildu egingo da, beherantz (dagokion zenbaki osoa, dezimalak kenduta) saridun aukera guztiak osatu arte (hau da, 350 saridun, horrela kalkulatu) eta horrelako eragiketarako eginez erreserbako saridunen aukerak (20) atera arte. Ondorio horietarako, fitxategiaren amaierara iritsiz gero, erregistratutako lehen aukerarekin jarraituko da kalkulua egiten, saridunen (350) eta erreserbako saridunen (20) aukera guztiak osatu arte; erreserbako saridunak atera diren hurrenkeraren arabera ordenatuko dira.

**9.-** Pertsona bakoitza behin baino ezin da saridun suertatu. Sari bat baino gehiago suertatuz gero aukera bat baino gehiago egokitu izanagatik, saritutako lehen aukerari dagokion saria soilik eskuratu ahal izango du.

**10.-** Saria egokitu izana, ondorio guztietarako (baita ondorio fiskaletarako ere), gutun bidez, telefonoz edo posta elektronikoz jakinaraziko zaio saridunari, edo Kutxabankek egokitzen jotzen duen beste edozein bitarteko

erabilita. Sustapen honen xede diren sariak ezin izango dira inola ere trukatu, aldatu edo konpentsatu saridunek eskatuta, eta sarien ordeztu ezin izango da sarien kontrabaloa dirutan jaso. Edozein arrazoirengatik ezinezkoa bada saridunei emaitzaren berri ematea zozketa egin eta hamabost eguneko epean, saria erreserbako saridunei esleitu zaie automatikoki, hurrenkeraren arabera.

Saridunak uko egin ahal izango dio sariari, baina ezin izango dio beste pertsona bati eman. Uko eginez gero, zozketako hurrengo erreserbakoari eskainiko zaio saria.

**11.-** Sariak Kutxabankek ekitaldi horretarako egokitzat jotzen duen moduan eta tokian emango zaizkie bezeroei. Sariak e-mailez bidaliko dira, kupoia aldatzeko beharrezkoa den kodea atxikita.

**12.-** Kupoia trukatzek esan nahi du saridunak Lege Oinarri hauek onartzen dituela.

**13.-** Sariari uko eginez gero, idatziz jakinarazi beharko da zozketaren emaitzari buruzko jakinarazpena jaso eta hurrengo 5 egun naturaletan. Bezeroak sariari uko egiten badiot, ez du inolako konpentsaziorik jasoko, eta zozketan saridun izan den hurrengo erreserbakoari eskainiko zaio saria.

**14.-** Zozketan parte hartuz gero, parte-hartzaileen datuak Kutxabanken Informazio Sistematan sartuko dira partaidetza hori kudeatzeko.

Datu horiek tratatu egingo dira, baina soilik saridunaren izen-abizenak eta/edo irudi pertsonala erreproduzitu, erabili edo zabaltzeko publizitateko eta/edo sustapeneko edozein jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatu erabilita; jarduera horiek ez dute inolako ordainketa edo mozkinik jasotzeko eskubiderik emango, saridunaren edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariaren berariazko baimena izanez gero.

Era berean, datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia duen eztabaidarik sortuz gero, edozein unetan kontrol-agintaritzan erreklamazioa aurkez daitekeela jakinarazten da, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, datuen aurka egiteko, datuen tratamendua mugatzeko, eramangarritasunerako eta datu pertsonalei dagozkien banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak ere balia daitezke. Eskubide horiek baliatu ahal izateko, komunikazio idatzi bat bidali behar da Kutxabanken egoitza sozialera edo [info@kutxabank.es](mailto:info@kutxabank.es) helbide elektronikora; kasu batean zein bestean, nortasuna egiaztatzen duen agiriaren kopia bat atxiki behar da, beharrezkoa izanez gero. Zure ustez, zure datu pertsonalak ez baditugu arauen arabera tratatu, Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke, helbide honetan: [dpo@grupokutxabank.com](mailto:dpo@grupokutxabank.com).

**16.-** Saridunak bere gain hartuko du sariaren ondorioz sortutako edozein karga fiskal.

**17.-** Zozketan parte hartzeko aukera ematen zieten Kutxabank txartelak zozketaren egunean ezeztatuta dituztenak ezin izango dira saridun suertatu.

Saria esleitzeko, ezinbestekoa izango da zozketan parte hartzen duen bezeroak ordainketak eta Kutxabankekin egindako beste edozein eragiketa egunean izatea, eta ezin izango du Kutxabankekin inolako zorrik izan, ezekin kontzeptu dela eta.

**18.-** Sustapen honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek berariaz onartzen direla, entitateak sustapenaren mekanika definitzeko ezarritako baldintzei dagokienez eta betiere parte-hartzaileak berariazko baimena ematea eskatzen ez duten baldintzak izanik. Sustapenaren oinarriak bete ez dituzten erabiltzaileak deskalifikatu ahal izango ditu Kutxabanke.

19.- Oinarri hauek eskura izango dituzte bezeroek, [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) webgunean.

Bilbo, 2024ko azaroaren 14a